

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresa aurrera eramateko, ezinbestekoa da argi eta garbi zehaztea guk geuk egingo ditugun zeregin guztiak. Hauek dira beste erakunde edo enpresen esku utzi ezin ditugun jarduerak, gure produktua kalitatezkoa eta guk nahi bezala ekoizteko. Gure panpinen helburua gizartean ezarrita dauden gorputz normatiboei kritika bat egitea da, eta hori lortzeko diseinua, ekoizpena eta komunikazioa guk kontrolatuko ditugu.

Gure produktuaren ardatz garrantzitsuenetakoa diseinuan datza, disenurik gabe ezin izango litzatekelako ez ekoizpena ez gainontzeko prozesurik aurrera eramanez. Horregatik, Garazi arduratuko da panpinen diseinu originala egiteaz, ezaugarri fisikoak eta gaur egungo janzkera estilo desberdinak islatuz. Horretarako, erreferentziak bilatu beharko ditu, milaka eta milaka zirriborro egin, prototipoak sortu hauek edertasun estereotipoen kritika adierazi egin behar dutela kontuan izanik eta azkenik, prototipo hauek talde osoarekin alderatu eta behar diren moldaketak egingo ditu.

Bestalde, diseinua errealitatera eramateko ezinbestekoa da materialen erosketak egokia gauzatzea, honen arduraduna Nesta izango da. Gure enpresaren kasuan oso garrantzitsua da material egokiak aukeratzea, plastiko birziklagarria, jantzi jasangarriak, hau da, ingurumena ahalik eta gutxien kaltetzen duten materialak erabiltzea. Gainera, enpresaren stock-a kontrolatuko du, beraz, materialen erosketaz arduratuko da baita ere.

Diseinua eta material egokiak izanik, panpinen ekoizpena gure kontrolpean egotea funtsezkoa da. Hori dela eta, Aitor arduratuko da ekoizpen-prozesuak gainbegiratzeaz eta gauzatzeaz: muntaketa, panpinak ekoizteko piezak egokiak eta beharrezkoak izateaz, besteak beste. Ekoizpena behar bezalakoa izateko, panpinak fabrikatzeko mota egokienak eta gutxien kutsatzen dutenak hautatu beharko ditu, baita tailer osoaren kontrola izan beharko du, arazorik egongo balitz ahalik eta azkarren konpontzeko ardura izanik.



Salmenta-kanalekin harremana mantentzea Garazi eta Aitorren ardurapean egongo den jarduera izango da, beraz, gure panpinak merkaturatzeko prozesua gauzatuko dute. Kanalen atalean aipatu bezala, gure enpresak ez ditu panpinak zuzenean bezeroei salduko. Horregatik, beraiek arduratuko dira Espainia eta AEBen salduko diren panpin-dendekin harremana ezartzeaz, mantentzeaz eta baldintzak adostez. Era berean, haien beharretara egokitzen saiatuko gara, baina gure irizpideak eta balioak galdu gabe.

Finantza-kudeaketa lantzeaz Martina arduratuko da, hau da enpresaren ekonomia orokorrean kontrolatzeaz. Enpresak dituen diru-sarrerak eta gastuen erregistroak egiteaz gain, publizitateen eta materialen erosketan egindako gastuak gainbegiratuko ditu. Gainera, hiler, gutako bakoitzari irabazien eta gastuen kalkulu-orri bat helaraziko digu, horrela taldekide guztien artean eztabaidatuko dugu gasturen bat murriztu egin behar den. Hori dela eta, panpinen salmenta jasangarria izatea kontrolatuko du.

Lera Style-ren ekonomiaz arduratzeaz gain, gure mezua mundu osora zabaltzea da gure helburuetako bat hori dela eta, Martina izango da gure enpresako publizitate eta komunikazio jardueren arduraduna baita ere. Gure proiektuaren oinarria *Barbie* enpresaren kritika bat egitea da, gorputz aniztasuna aldarrikatuz, ondorioz, ezinbestekoa da mezua modu egokian transmititzea. Sare sozialetarako edukiak sortuko ditu, hala nola, argazkiak, bideoak azalpen-testuak eta abar. Era berean, influenzerrekin harremanak kudeatuko ditu gure enpresak beraiekin lan egiteko. Gainera, kanalen atalean aipatu bezala, bezeroekin harremanak ere kudeatuko ditu.

